# NOTA DE PRENSA

## EL PSE-EE PIDE QUE HAYA UN RECONOCIMIENTO OFICIAL A RAMÓN PÉREZ, EL ÚLTIMO ALCALDE REPUBLICANO DE HONDARRIBIA

El grupo municipal socialista de Hondarribia ha pedido al alcalde de la localidad, Txomin Sagarzazu, que aplique en Hondarribia la Ley de Memoria Democrática, en aquellos aspectos que son competencia municipal. En una rueda de prensa que ha tenido lugar esta mañana en los Arkupes del Ayuntamiento de Hondarribia, los dos concejales del PSE-EE, Iosu Álvarez y Noemí Odriozola, acompañados por dos exconcejales del PSE-EE, María Jesús Garín y Ramón Laborda, han anunciado que han enviado una carta al primer edil de la ciudad para, entre otras cuestiones, desde el Ayuntamiento se haga un reconocimiento oficial a Ramón Pérez, "el último alcalde republicano de Hondarribia", que murió en el exilio.

En el articulado de la nueva ley, recién aprobada el pasado 5 de octubre en el Senado, culminando así su recorrido parlamentario en las Cortes Generales, tras ser aprobada definitivamente en la Cámara Alta, declara la ilegitimidad de los tribunales franquistas y la nulidad de las sanciones aplicadas por ellos. Por ello, las condenas a muerte impuestas al militante comunista Jesús Carrera Olascoaga y al chofer, Jesús Mangado, –ambos fusilados-, así como las sentencias que condenaban a Margarita Araneta "por roja", al capitán de gudaris, Fermín Sanz de Río, y otros procesados por las autoridades franquistas son "definitivamente nulas". Además, "se reconoce la injusticia" hacia estas personas y lo mismo se puede decir de los hombres y mujeres que fueron procesados y condenados por el Tribunal de Responsabilidades Políticas, así como los funcionarios depurados. "Esto supone que a nivel municipal se debe avanzar en el reconocimiento de los maestros y funcionarios separados del servicio por el franquismo, la reposición de los concejales depuestos en septiembre de 1936 y, por supuesto, el reconocimiento de Ramón Pérez como alcalde de Hondarribia", han explicado. Del mismo modo, -han continuado_, que se debe avanzar en la aplicación del artículo 36 sobre los "Símbolos y elementos contrarios a la memoria democrática" que abre un nuevo camino, en el caso del busto del alcalde Francisco Sagarzazu, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Hondarribia.

En la rueda de prensa, los concejales y exconcejales han destacado que Ramón Pérez fue elegido democráticamente en las elecciones de 1931 como miembro de la corporación. Con 28 años, se convirtió en uno de los concejales "más jóvenes" de la corporación y fue el "primer concejal socialista" de la ciudad. El nombramiento como alcalde se produjo en 1936, tras la designación de José Antonio Agirre como primer lehendakari del Gobierno Vasco. Han explicado, que Pérez se mantuvo leal al gobierno de la República al producirse el golpe de estado, que dio lugar a la Guerra Civil y, además, se sumó a la defensa del orden constitucional, formando parte de la Comisaría de Guerra. Cuando las tropas sublevadas se acercaban a Hondarribia, Ramón Pérez, junto con muchos hombres y mujeres hondarrabitarras, abandonó la ciudad porque sabía que su vida peligraba. Huyó a Francia desde el dique situado en Kai Zaharra, dónde el ayuntamiento, con el consenso de todas las fuerzas políticas, colocó una placa de memoria. Ramón Pérez es el único alcalde de Hondarribia que murió en el exilio.

Por último, desde el PSE-EE de Hondarribia están convencidos que acciones como la que proponen en Hondarribia tienen como objetivo que los ayuntamientos se conviertan en agentes claves en el cumplimiento y aplicación de la nueva Ley de la Memoria Democrática. En este sentido, desde el PSE-EE de Hondarribia se insta a continuar en la línea marcada por el artículo 14 dedicado al "derecho a la verdad" de las víctimas, continuando un camino ya avanzado hace unos años, para sustanciar documentalmente los diversos procesos represivos. Es cierto que parte se ha llevado ya a cabo, y se encuentra en el Archivo Municipal, pero queda pendiente, por ejemplo, la cuestión de los trabajos forzados -expresamente recogidos en el artículo 33 de la ley- que en Hondarribia tuvo una gran importancia en la construcción de las defensas desarrolladas por el franquismo.

Hondarribia, 18 de octubre de 2022

# PRENTSA-OHARRA

# RAMÓN PÉREZ, HONDARRIBIKO AZKEN ALKATE ERREPUBLIKANOARI ERREKONOZIMENDUAREN ALDEKO EKINTZAK GARATZEKO DEIA EGIN DU PSE-EEK

Hondarribiko udal talde sozialistak Memoria Demokratikoaren Legea Hondarribian ezar dadin eskatu dio herriko alkate Txomin Sagarzazuri, udalaren eskuduntza dela eta. Gaur goizean Hondarribiko Udaleko Arkupetan egindako prentsaurrekoan, PSE-EEko bi zinegotziek, Iosu Alvarezek eta Noemi Odriozolak, eta PSE-EEko bi zinegotzi ohiek, María Jesús Garín eta Ramón Labordak, jakinarazi dute gutun bat bidali diotela Sagarzazuri, besteak beste, Udalak Ramón Pérez, erbestean hil zen Hondarribiko azken alkate errepublikarrari errekonozimenduaren aldeko ekintzak garatzeko. Errepresioaren eta erbestearen ondorioz, ez zuen aintzatespenik izan.

Lege berria joan den urriaren 5ean onartu zen Senatuan, eta Gorte Nagusietan amaitu zuen bere ibilbide parlamentarioa, Goi Ganberan behin betiko onartu ondoren. Legearen artikuluetan auzitegi frankisten legezkotasunik eza eta horiek aplikatutako zehapenen deuseztasuna deklaratzen dira. Horregatik, Jesús Carrera Olascoaga, militante komunistari, eta Jesús Mangado txoferrari – biak fusilatuak – ezarritako heriotza-zigorrak eta Margarita Araneta "gorria izateagatik", Fermín Sanz de Rio gudarien kapitaina, eta agintari frankistek auzipetutako beste batzuk behin betiko baliogabeak dira. Gainera, pertsona horienganako bidegabekeria aitortzen da, eta gauza bera esan daiteke Erantzukizun Politikoen Auzitegiak auzipetu eta kondenatu zituen gizonei eta emakumeei buruz, baita kargugabetu funtzionarioei buruz ere. Horrek esan nahi du udal mailan aurrera egin behar dela frankismoak zerbitzutik banandutako maisu-maistren, eta funtzionarioen onarpenean, 1936ko irailean kargutik kendutako zinegotzien birjarpenean eta, jakina, Ramón Pérez Hondarribiko alkate izateagatik errekonozimendua emateko. Era berean, 36. artikulua ezarri egin behar dela, Hondarribiko Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, Francisco Sagarzazu alkatearen

bustoaren kasuan, bide berri bat irekitzen duen Sinboloei eta memoria demokratikoaren aurkako elementuei buruzkoa.

Prentsaurrekoan, zinegotziek eta zinegotzi ohiek nabarmendu dute 1931ko hauteskundeetan Ramón Pérez demokratikoki hautatu zutela udalbatzako kide. 28 urterekin, udalbatzako zinegotzi gazteenetakoa zen, eta hiriko lehen zinegotzi sozialista izan zen. 1936an izendatu zuten alkate, Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakari izendatu zutenean. Azaldu dutenez, Pérez Errepublikako gobernuarekin zintzoa izan zen estatu-kolpea gertatu zenean, eta, gainera, Konstituzioaren defentsarekin bat egin zuen, Gerra Komisaldegian parte hartuz. Matxinatutako tropak Hondarribira hurbiltzen ari zirenean, Ramón Pérezek, gizon eta emakume hondarrabitar askorekin batera, hiria utzi zuen, bere bizitza arriskuan zegoela baitzekien. Frantziara ihes egin zuen Kai Zaharreko diketik, non udalak, indar politiko guztien adostasunarekin, oroimen plaka bat jarri zuen. Ramón Pérez da erbestean hil zen Hondarribiko alkate bakarra.

Azkenik, Hondarribiko PSE-EEk uste du Hondarribian proposatzen duten bezalako ekintzen helburua da udalak Memoria Demokratikoaren Lege berria betetzeko eta ezartzeko funtsezko sustatzailea izatea dela. Ildo horretan, Hondarribiko PSE-EEk 14. artikuluak biktimen egia jakiteko eskubideari buruz ezarritako erronkarekin jarraitzeko eskatu du, eta, horretarako, garrantzitsua da errepresio-prozesuei buruzko dokumentazio guztia ikertu eta aztertzea. Egia da zati bat dagoeneko gauzatu dela, eta Udal Artxiboan dagoela, baina egiteke dago, adibidez, Hondarribian frankismoak garatutako defentsen eraikuntzan garrantzi handia izan zuten lan behartuen auzia, legearen 33. artikuluan esaten den bezala.

Hondarribia, 2022ko urriaren 18a